



## “Egiten dugu sarri euskara’ berez den baino gaitzago”

### Erramun Gerrikagoitia | Prepositiboa

Ez dut sekula hainbeste sufritu,  
transkripzio batekin.

ARITZ GALARRAGA

Argazkia: Iñigo Azkona

**Erramun, holako euskara entzutea egiten zaigu gogor eta arrotz.**

Izango da holako euskara irakurtzea ze ni ez naiz mintzatzen holatsu. Baina seguru naiz ze niri ere neure textu bat egingo litzakidala entzuteko raro.

**Izanik zorionez forma errazagoak eta naturalagoak an euskara!**

Niri, ostera, egiten zidana arrotz eta gogor da entzutea edo tv-en edo radioan “intsulina”, “erradikal”... eta holatsukoak, beharren entzun “insulina”, “radikal”...

**Zergatik behar dira erabili holakoak?**

Zeren bait dira, erabilirik zentzuz eta tentuz, hobeak ezi egun ikusten ditugunak prensan, hainbat textu quasi inasekibleak, quasi opa-koak, inulergarriak.

**Hitz gehiago amnistiatu kulturalki, beraz. Amnistia osoa euskareari.**

Deus espezifikatu gabe, bai. Duda barik. Izan behar dugu edo dukegu autonomo an gure hizkuntza. Ez dugu izan behar robot obediente automatizatu telezuzenduak guk personok.

**Euskal verbua da, duda gabe, hagitz komplikatua.**

Nitaz aparte beste askok ere ba dio ze euskal verbuak behar du inausketa sendo bat izan ez dadin totem beldurgarri paralizante bat.

**Euskarak ba dauka fama dela hizkuntza ikas-teko gaitza, esaten izan zen ezen deabruak ere ezin ikasi izan zuela.**

Ikusirik zenbat ikasle hasi diren zintzoki ikasten euskara amaitu barik nork uka liro fama horrek ba duela parte bat tik fama difizil hori? Da evidentea. Gainera egiten dugu sarri euskara’ berez den baino gaitzago.

**Errua eta ondorioz akaso kulpabilitatea norena ote da?**

Batetik euskarak berak baduke hortan bere parte. Akademiak ere ez du sobera permisibilitaterik eta ez du ematen gainera rasonatze publikorik buruz bere megaloaraudi finbakoa.

**Gure Akademiaren praxis orthographiko eta lexikala da logikoa edo illogikoa?**

Nire eretxiz da total illogikoa orthographian, hitz internationaletan. Ez duke Akademiak ikasi oraino zer den Kultura Okzidentalala eta gu garela horren parte aintzinatik.

**Zure idaztankera gehiago serioa da ezi Euskaltzaindiarena?**

Buruz orthographia bai, duda barik, hitz internationaletan. Beste nire arlotan, nola ahalegin syntaktikoa edo erabilera prepositiboa, hartzen dut nire bide hau aprobakotzat. ■